

Gratu Amaierako Lana  
Medikuntzako Gradua

# Epilepsia haurdunaldian: azido valproikoa 2018an OSI Donostialdeko emakume emankorretan

Azterketa deskriptiboa

Egilea:

Leire Ugarte Mugarza

Zuzendaria:

Vicente Olasagasti Calzacorta

© 2019, Leire Ugarte Mugarza.

<http://es.creativecommons.org/blog/licencias/>

# **AURKIBIDEA**

## **LABURPENA**

### **1. SARRERA**

- 1.1. EPILEPSIA ETA HAURDUNALDIA
- 1.2. AZIDO VALPROIKOA
- 1.3. AZIDO VALPROIKOA EMAKUME EMANKORREAN
- 1.4. AZIDO VALPROIKOA HAURDUNALDIAN
  - 1.4.1. Albo-ondorio fetal eta neonatalak
  - 1.4.2. Epe luzera ager daitezkeen albo-ondorioak
- 1.5. HAURDUNALDIAN GOMENDATUTAKO TRATAMENDUA

### **2. HELBURUAK**

### **3. MATERIALAK ETA METODOA**

- 3.1. DISEINUA ETA IKERKETA-POPULAZIOA
- 3.2. AZTERTUTAKO ALDAGAIK
- 3.3. KONTSIDERAZIO ETIKOAK
- 3.4. IKERKETAREN MUGAK

### **4. EMAITZAK**

- 4.1. AZIDO VALPROIKO AGINDUAREN EZAUGARRIAK
  - 4.1.1. Diagnostikoa
  - 4.1.2. Dosia
- 4.2. KONTRAZEPZIOA
- 4.3. HAURDUNALDIAK
- 4.4. PAZIENTEEK JASOTAKO INFORMAZIOA

### **5. EZTABAIDA**

### **6. ONDORIOAK**

### **7. BIBLIOGRAFIA**

### **ERANSKINAK**

## Laburpena

**Sarrera:** Azido valproikoa (AVP), Depakine izen komertzialez ere ezaguna, epilepsia orokorraren tratamenduan da eraginkorra batez ere. Medikamentu antiepileptikoetatik arrisku teratogeniko handiena duen sendagaia da eta emakume haurdunetan epilepsiaren maneiu alternatibo on bat posible ez denean bakarrik izango da onartua. Sortzetiko malformazio nagusiez gain, haurrak bere garapen neurologikoan asaldurak ere izan ditzake AVParen eraginez.

**Helburua:** 2018an OSI Donostialdean azido valproikoa hartzen duten emakume emankorren azterketa deskriptiboa egitea, paziente hauen ezaugarri orokorrak, kontrazepzio metodoak, haurdunaldiak eta sinatutako baimen informatuak aztertuz.

**Metodologia:** OSI Donostialdean neurologia saileko ebolutibo bat duten eta AVP hartzen ari diren 14 eta 50 urte bitarteko emakume emankorren datuak aztertuko dira.

**Emaitzak:** aztertutako 48 pazientetatik %97.9ak epilepsiaren tratamendurako hartzen du AVP eta 40-50 adin tartekoak dira pazienteen % 60.3. Emakume emankorren %41.7aren eguneko dosia 700-1000mg artekoa da. 1000mg baino gehiago %20.8ak hartzen du eta gehiengoa 30 urte baino gehiagoko adin tartean dago. 48 emakumetatik 17k erabiltzen dute kontrazepzio metodoren bat. AVP haurdunaldian jaso zuten emakumeen haurren %93.3, 14 zehazki, malformazio nagusirik gabe jaio ziren. 48 emakumetatik 30ek sinatu dute AVPak izan ditzakeen albo-ondorioen informazio jaso eta onartzen dutenaren baimen informatua. Baimen informatua sinatuta ez agertzearen arrazoi nagusia emakumea kontsultara agertu ez izana da.

**Ondorioak:** azken urteetan MAE berriek lekua hartu diote AVPari eta ondorioz emakume emankorrei AVP agintzeko joera nabarmen beherantz joan da. Haurdunaldian jasandako albo-ondorioak aztertzeko lagina txikia izan da, haurdunaldi gehienak sistema informatizatua egon baino lehenagokoak baitira. Azkenik, AVParen albo-ondorioen inguruko informazioa paziente gehienek jaso eta onartu dute OSI Donostialdean.

# 1. SARRERA

## 1.1. EPILEPSIA ETA HAURDUNALDIA

Epilepsia, adin guztietako pertsoneri eragin dezakeen gaixotasun neurologiko kronikoa da eta populazio guztiaren % 0.6-1an eragiten du.<sup>22</sup> Medikamentu antiepileptikoak (MAE) hartzen dituen biztanleriaren heren bat gutxi gorabehera adin emankorren dauden emakumeak dira eta 250 haurdunaldietatik 1ean MAEak presente daude.<sup>1</sup>

Gaur egun, epilepsia duten emakumeen % 90 baino gehiagok haurdunaldi normal bat izaten du. Hala ere, epilepsia duten emakumeak, biztanleria orokorra baino arrisku handiagoa dute haurdunaldian arrisku perinatalak izateko, preeklanpsia, erditze goiztiarrak eta fetuaren eta amaren heriotza barne.<sup>15</sup> Krisi epileptikoak fetuan eragin ditzakeen ondorioak saihesteko emakume gehienetan ezinbestekoa da medikamentu antiepileptikoen erabilera.<sup>22</sup>

Azken hamarkadan geroz eta ikusmira handiagoa sortu da epilepsia duten emakume emankorren tratamenduaren inguruan.<sup>2</sup> Izan ere, MAEak emakume ugalkorren artean gehien preskribitzen diren sendagai teratogenikoak dira eta nahiz eta medikamentu antiepileptiko bezala klasifikatuak egon, min neuropatikoak, migraina eta nahasmen psikiatrikoak tratatzeko ere erabiliak izaten dira.<sup>13</sup>

Hainbat behaketa ikerketek adierazten duten bezala, MAE guztietatik arrisku teratogeniko handiena duen sendagaia, azido valproikoa (AVP) edo Depakine izen komertzialez ere ezaguna dena da.<sup>19</sup> Geroz eta ebidentzia handiagoz ikusi da emakume haurdun batean AVP erlazionatuta dagoela haurdunaldian jasandako malformazio fetalekin eta baita ere haurrak luzarora izan ditzakeen garapen neurologikoko nahasmenduekin ere. Horren ondorioz, gaur egun haurdun gelditu daitezkeen edo haurdun dauden emakumeengan neurriak hartzen dira AVParen erabilerari dagokionez. Orain gutxi, Europako Medikamentuen Agentziak, AVParen kontrola indartzea proposatu du bai haurdun dauden emakumeekin eta baita haurdun gelditu daitezkeenekin, kontrazepzio neurriak hartuz. Depakine emakume

haurdunengan erabiltzearen debekua ia guztizkoa da eta maneiu alternatibo on bat posible ez denean bakarrik izango da onartua bere erabilera.<sup>20</sup>

## 1.2. AZIDO VALPROIKOA

Azido valproikoa (AVP), kate adarkatuak dituen azido karboxilikoa da eta 1978an medikamentu antiepileptiko bezala onartua izan zen Estatu Batuetan.<sup>11</sup> 1982an erlazionatu zen lehen aldiz malformazio kongenito bat, arantza bifidoa, MAE espezifikoko batekin, AVPrekin hain zuzen.<sup>13</sup> Hau ikusirik, kohorte handiagoko behaketa ikerketak egin ziren eta AVP farmako teratogenikoa zela baieztatu zen ebidentzia handiago batekin.<sup>22</sup>

AVPak edo Depakinek, epilepsia orokorraren tratamenduan eraginkortasun handia erakutsi du. AVParen albo-ondorioak saihesteko zenbait kasutan farmako alternatibo bat bilatzea zaila edota ezinezkoa gerta daiteke gaur egun eta are zailagoa zen azken bi hamarkadetan. Sendagai honek emakume emankor eta haurdunengan izan ditzakeen albo-ondorioengatik, AVParen erabilera epilepsia orokorraren tratamenduan gutxitu egin da. Gaixotasun psikiatrikoetan aldiz, nahasmen bipolar eta migrainen profilaxian eta mania akutuen tratamenduan, handitu egin da AVParen erabilera.<sup>10,18,19</sup>

Depakineren eguneko dosi terapeutikoa 500mg eta 2000mg artekoa da nagusiengan eta 15-60mg/kg haurrengan.<sup>10</sup> Beste MAEtan ez bezala, AVParen kasuan, teratogenia arriskuak farmakoaren dosi handitzearekin erlazio estua duela egiaztatu da hainbat ikerketetan. EURAPen, MAE desberdinen eraginpean izandako haurdunaldiak jasotzen dituen erregistro internazionalan, sortzetiko malformazio nagusien prebalentzia % 5.6 dela ikusi da 700mg baino gutxiagoko dosietan eta 1500mg baino handiagoko dosietan berriz, % 24.2. Australian duela gutxi eginiko erregistro berrietan, AVParen batz besteko eguneko dosiaren jaitsiera bat aztertu zuten eta aldi berean, hodi neuronalaren malformazioan beherakada bat egon zen. Datu hauek ikusirik, AVParen eguneko dosiak malformazio nagusien prebalentziarekin lotura zuzena zuela egiaztatu zuten.<sup>23</sup>

### 1.3. AZIDO VALPROIKOA EMAKUME EMANKORREAN

AVPak daukan eragin teratogenikoa egiaztatuta, gomendagarria da antisorgailuen erabilera emakume emankorrenan, izan ere haurdunaldien %50 inguru ez dira planifikatuak izaten. Entzima induzitzaileak diren MAE-ek antisorgailu hormonalen eraginkortasuna jaisten dute, hauen artean daude pilulak, eraztun baginala edo etonogestrelen inplantea. Beraz, MAE induzitzaileak hartzen dituzten emakumeetan ekintza luzeko umetoki barneko antisorgailu itzulgarriak edo medroxiprogesterona azetato intramuskularra erabiltzea gomendatu behar da.<sup>15</sup> AVP ez da entzima induzitzailea eta ez du antisorgailuen eraginkortasun maila jaisten. Hala ere, emakumearen plasmako AVP kontzentrazio serikoak jaitsi daitezkeela ikusi da estrogenotik eratorritako antisorgailuak erabiliz gero.<sup>21</sup>

Depakine antisorgailu hormonalekin konbinatzean, pazienteak konbultsioak sarriago izateko joera duela aztertu da, beste kontrazepzio metodoekin gertatzen ez den bezala. Elkarrekintza hau aztertzeko egindako ikerketa batean, AVP antisorgailu hormonalekin batera hartzen zuten 40 emakumeetatik 15ek (% 37.5) konbultsioen maiztasun igoera bat adierazi zuten eta antisorgailu ez-hormonalak erabiltzen zuten 43 emakumeetatik berriz, batek ere ez. Konbultsioen maiztasun jaitsieran aldiz, emaitzak ez ziren esanguratsuak izan **1. Taulan** ikus dezakegun bezala. Beraz, gomendagarria da AVP hartzen duten emakumeengan, antisorgailu ez hormonalak erabiltzea.<sup>7</sup>

**1. Taula: Azido Valproikoaren monoterapiaren jasandako konbultsioen maiztasun aldaketa, erabilitako antisorgailu motaren arabera.**<sup>7</sup> KF: konbultsioen frekuentzia. Fisher test zehatza konbultsioen igoerarako:  $p < 0.0001$ . Fisher test zehatza konbultsioen jaitsierarako:  $p =$  ez esanguratsua.

	N	KF igoera (%)	KF jaitsiera (%)
Azido Valproikoa			
Antisorgailu hormonalak	40	15 (% 37.5)	2 (% 5.6)
Antisorgailu ez-hormonalak	43	0 (% 0.0)	2 (% 4.7)

Epilepsia duten emakume emankorrenan maiztasun handiagoan agertzen dira ugalkortasun asaldurak. Obario polikistikoko sindromea (OPS), hilerokoaren nahasteak

eta ugalkortasun tasa baxua aipatzen dira asaldua hauen artean.<sup>9</sup> AVP tratamendua hartzen duten emakumeek, OPS izateko aukera gehiago dute beste MAEak hartzen dituzten emakume emankorrekin alderatuta.<sup>8</sup>

OPSren prebalentzia % 13-25 bitartekoa da epilepsia duten emakumeengan eta % 4-6 bitartekoa berriz biztanleria orokorrean. Bereziki AVPa 20 urte baino lehenago hartzen hasi diren emakumeengan deskribatu da OPS intzidentzia handiagoa. Hala ere, ez da erlazio esanguratsurik aurkitu AVParen eguneko dosia eta iraupenaren eta OPS maiztasuna handiagotzearen artean.<sup>23</sup>

#### **1.4. AZIDO VALPROIKOA HAURDUNALDIAN**

Hainbat kohorte ikerketetan eta haurdunaldi erregistroetako emaitzetan ikusi da AVPa beste MAEak baino teratogenia handiagoa daukala. Gainera, beste MAEekin gertatzen ez den bezala, AVParen kasuan dosi kontzentrazioak handiagoak izaten dira zilbor-hestean amaren serumean baino, seguraski plazentaren transferentzia handiago batengatik. Honengatik guztiagatik, haurdunaldian AVP saihestu beharreko sendagaia da, beste MAEekin epilepsiaren kontrol egokia ez izatea izango litzake salbuespen bakarra. AVP saihestu ezin den kasuetan, ahalik eta dosi efektibo baxuena emango litzateke, posible bada, 500-600mg/eguneko dosia eta plasmako dosiak baxu mantenduz (< 70mcg/mL).<sup>15</sup>


AVP hartzen duten emakumeengan azido folikoaren dosi handiago bat hartzea gomendatzen da hodi neuralaren akatsak ekiditeko 1mg/eguneko beharrean 4mg/eguneko. Haurdunaldiaren aurretik azido folikoa hartzeari dagokionez, ikerketa behatzaile gutxi batzuek ezin izan dute frogatu azido folikoa haurdunaldi aurretik hartzeak onura handiagoa duenik azido folikoa haurdunaldian bertan hartzen hastea baino. Hala ere, MAEak hartu duten emakume epileptikoen umeen ikerketa kognitibo eta konduktualetan frogatu da azido folikoa haurdunaldi aurretik hartzen hastearen onura, izan ere, ume hauetan koefiziente intelektuala altuagoa izan zen eta autismo tasak berriz baxuagoak.<sup>15</sup> Beste artikuluko batek era arbitrarioan adierazten du, egokia dela azido folikoa haurdunaldia baino 3 hilabete lehenago hartzen hastea. Azido folikoaren dosia emakumeak jasango lukeen onurarekiko independentea dela dio, betiere 0.4mg/eguneko baino gutxiago hartzen ez bada.<sup>19</sup>

### 1.4.1. Albo-ondorio fetal eta neonatalak

Umetokian AVParekiko esposizio izateak, fetuen % 1-2an hodi neuralaren garapenaren asaldurekin (adb: arantza bifido irekia, lunbosakroko mielozele irekia) harremana du eta honek biztanleria orokorrarekiko 10etik 20rako handipena adierazten du. Haurdunaldiaren lehen hiruhilekoan AVParen esposizioak beste asaldura garrantzitsu batzuk ere eman ditzake, aho-arraildura, asaldura kardiobaskularrak eta urogenitalak esate baterako. *European Surveillance of Congenital Anomalies* datu basea erabilia egindako kasu-kontrol ikerketa batean, AVP esposiziorik izan ez zuten fetuekin konparatuz, malformazio bakoitzerako doitutako Odds Ratioak honako hauek izan ziren: arantza bifidoa (12.7), septu atrialaren asaldura (2.5), ahosabai arraildura (5.2), hipospadia (4.8), polidaktilia (2.2) eta kraneosinostosis (6.8).<sup>16</sup>

Haurdunaldian hartutako AVParen dosia geroz eta handiagoa izan, orduan eta arrisku handiago dago fetuak malformazio nagusiak izateko. Ahosabai arraildurari dagokionez, ez zen estatistikoki esanguratsua izan AVParen dosia eta asaldura honen arteko lotura. Arantza bifidoan, hipospadian, bihotzeko eta arteria handien malformazioetan eta hatzen asalduretan berriz, AVParekiko dosi erlazioa estatistikoki esanguratsua izan zen **1. Irudian** ikus dezakegun bezala. Malformazio fetal bakarra deskribatu zen 40 emakume haurdunen eguneko dosi minimoa aztertu ondoren, hauek izan ziren malformazio bakoitzaren agerpenaren dosia: arantza bifidoa 1000mg, bihotz eta arteria nagusiak 400mg, hipospadiak 400mg, ahosabai arraildura 500mg eta hatzetako asaldurak 400mg.<sup>20</sup>

#### 1. Irudia: Malformazio fetalaren arrisku gutxiagotzea AVParen dosiarekiko.





Epilepsiak ez du aneuploidia kromosomikoaren arriskua aldatzen, hala ere AVPrekin tratamenduan dauden emakumeengan beharrezkoa da frogak egitea honek daukan arrisku teratogenikoa dela eta. Anomalia morfologikoak aztertzeko ekografia haurdunaldiko 17-20.asteetan egin daiteke eta hauetan fetuaren atzeko hobia eta bizkarrezurra normala bada, hodi neuralaren asaldua bazter dezakegu. Zalantzaren bat izanez gero, hodi neuralaren egoera guztiz baieztatzeko, haurdunaldiaren 16. astetik aurrera alfa fetoproteinaren (AFP) kontzentrazio serikoa neurtu dezakegu edo amniozentesia egin likido amniotikoaren AFP mailak aztertzeko. Ekokardiografia, aurretik fetuan egindako ekografian anomaliak ikusiz gero egingo dugu soilik.<sup>15</sup>

MAEak haurdunaldian hartzearen kezka nagusia farmako hauen ahalmen teratogeniko estrukturala eta garapen neurologikoan izan ditzaketen ondorioak izan arren, beste albo-ondorio batzuk ere deskribatu dira. Kohorte ikerketa batean, MAEak haurdunaldian hartu zituzten emakumeek pisu baxuko jaioberria (PBJ) edo erditze goiztiar bat izateko arrisku handiagoa zutela egiaztatu zen. Bi albo-ondorio hauek epilepsia zuten emakumeengan eta baita gaixotasun neuropsikiatrikoak zituztenengan ikusi ziren. Epilepsia zuten emakumeengan, haurdunaldian konbultsioa izatean edo politerapia kasuan, PBJ eta erditze goiztiarraren maiztasuna handiagoa izan zen. PBJren arriskua aldatu egiten zen MAEaren arabera; topiramato, zonisamida eta fenobarbital hartzen zuten emakumeen haurretan arriskua handiagoa zen.<sup>5,6</sup>

Epilepsia duten eta MAEak hartzen dituzten emakumeen jaioberriek, jaio eta 1.minutuan egiten den Apgar testean 7 puntu baino gutxiago ateratzeko arrisku handiagoa dute. Jaio berriaren arnas zailtasunari, umetoki barneko atzerapenari eta zainketa intentsiboetako unitatean ospitalizatzeari dagokionez, ikerketa batzuetan arrisku handiagoa dutela ikusi da, baina emaitzak ez dira esanguratsuak izan.<sup>5</sup>


#### **1.4.2. Epe luzera ager daitezkeen albo-ondorioak**

Hainbat ikerketa behatzaileen arabera, haurdunaldian MAE presentziak eragin kognitibo eta konduktualak ditu haurraren.<sup>9</sup> Garapen neurologikoko asaldua hauek izateko arriskua desberdina da MAE motaren arabera eta ikertutako MAE

guztietatik AVP izan da garapen neurologikoko asaldurekin gehien erlazionatu den farmakoa.<sup>4,15</sup>

Umetokian AVParekin kontaktuan egondako hiru urtetako haurren koefiziente intelektuala (KI) beste MAE-ekin kontaktuan egondako haurrekin konparatzean, KI baxuagoak izan zirela aztertu zuten ikerketa batean. AVParekin kontaktuan egondako haurren KIaren puntuazioa, lamotriginarekin kontaktuan egondakoena baino 9 puntu baxuagoa zen (% 95 konfiantza tarte [KT] 3.1,14.6; P=0.009), fenitoinarekin kontaktuan egondakoena baino 7 puntu baxuagoa (% 95 KT, 0.2,14; P=0.05) eta carbamazepinarekin kontaktuan egon zirenak baino 6 puntu baxuagoa (% 95 KT, 0.6-12 P=0.04). Bestalde, AVP eta koefiziente intelektualaren lotura dosi dependentea da eta arriskua nabarmen handitzen da 800-1000mg baino handiagoko eguneko dosietan. Ez zen loturarik aurkitu AVParekin kontaktuan egondako haurren eta amaren KIarekin eta lamotrigina, carbamazepina eta fenitoinaren kasuetan berriz lotura esanguratsua zela ikusi zen.<sup>1,2,11</sup>

**2.Irudia:Umetokian MAEkin kontaktua izan zuten haurren Klen puntuazioak, farmako eta dosien arabera.<sup>11</sup>**



Batez bestekoa (karratu beltzak) eta %95eko konfiantza tarte (lerro horizontalak) farmako eta dosi antiepileptikoen arabera ematen dira. Farmako antiepileptikoen dosi baxuak farmako bakoitzaren batez bestekoaren azpitik daude eta dosi altuak, batez bestekoaren berdinak edo altuagoak dira. Batez besteko dosiak hauek izan ziren: 750mg/eguneko carbamazepina, 433mg/eguneko lamotrigina, 398mg/eguneko fenitoina eta 1000mg/eguneko valproatoa. Lerro bertikala haur guztientzako ezarrita dagoen batez besteko KI da eta karratu beltzen neurria laginaren tamainarekiko proportzionala da.<sup>11</sup>

Beste ikerketa batean, umetokian AVParekin kontaktuan egondako 6 urteko haurren KI besteekiko 7-10 puntu baxuagoa zela baieztatu zen eta hitz egiteko ahalmen eta memoria txarragoarekin ere zerikusia zuela ikusi zuten. Azido folikoa haurdunaldi aurretik hartu zuten emakumeen 6 urteko haurrek KI altuagoa izan zuten besteek baino. Hau ikusirik, nahiz eta eztabaida egon honen inguruan, azido folikoa haurdunaldi aurretik hartzea ona izan daiteke haurraren garapen kognitiborako.<sup>2,9,12</sup>

Arreta galeragatiko eta hiperaktibitateagatiko asaldura (AGHA) izateko % 48ko arrisku handiagoa dute AVP haurdunaldian hartu duten emakumeen haurrek. Haur hauek, 15 urterekin AGHA izateko duten arrisku absolutua % 11koa da eta gainontzeko haurretan % 4.6koa. Beste MAE eta AGHA izateko arrisku igoeraren emaitzak ez ziren esanguratsuak izan, beraz beste MAEak AGHA izateko arriskuarekin zerikusirik ez dutela esan genezake.<sup>3</sup>

Espektro autistaren nahastea (EAN) izateko ere arrisku handiagoa dute jaio aurretik AVParekin kontaktuan izandako haurrek. Danimarkan egindako ikerketa batean AVP hartu zuten 508 haurdunaldi aztertu ziren eta EAN izateko arriskuaren igoera esanguratsua izan zen, arrisku absolutua % 4.42 izanik (% 95KT= 2.59, 7.46). EAN izateko arriskuaren igoera hau epilepsia ez izanik AVP hartu zuten emakumeengan ere ikusi zen eta AVParen tratamendua haurdun gelditu baino 30 egun lehenago utzi zuten emakumeengan berriz ez zen arrisku igoera ikusi; bi emaitza hauek AVP eta EANaren arteko loturaren hipotesia indartu egiten dute. Beste MAEetan, carbamazepina, oxcarbazepina, lamotrigina eta clonazepam, ez zen EAN izateko arrisku igoera esanguratsurik azaldu.<sup>9,13,16</sup>

### **1.4.3. Edoskitzaroa**

Edoskitzeak epe laburrera zein luzera jaioberriaren osasunean daukan onura jakinik, edoskitzaroarentzako MAEak hartzea ez da kontraindikazio bat. AVParen kasuan, amaren dosi plasmatikoaren % 5-10a egongo litzake amaren esnean.<sup>16</sup> Ezohiko kasu batean, purpura tronbozitemikoa, anemia eta erretikulozitosia ikusi ziren 3 hilabeteko bularreko haur batean eta bere ama AVP 1200mg/eguneko dosia hartzen ari zen. Bularreko haurraren kontzentrazio serikoa 6.6mg/ml izan zen eta edoskitzaroa etetea, aurreko sintomen guztizko desagertzea eman zen.<sup>9</sup>

Epilepsia duten emakumeengan edoskitzaroa gomendatzen da eta beraz, amaren loa ahalik eta gutxien asaldatu behar da. Senitartekoen laguntza beharrezkoa izango da amak ateratako esnearekin edo esne formulekin osatutako biberoi bat edo bi gauzez haurrari emateko. Horrela amaren loa bermatua egongo da eta gutxienez 4-6 ordu etenik gabe lo egiteko aukera izango du.<sup>17</sup>


## 1.5. HAURDUNALDIAN GOMENDATUTAKO TRATAMENDUA

Haurdunaldian eta erditzean zehar, epilepsia duen emakumeak arrisku faktore gehiago ditu krisi epileptikoak izateko. Arrisku faktore ohikoenen artean, lo falta, estres emozionala eta MAE mailen alterazioan eragina izan ditzaketen gorakoak daude. Haurdunaldian krisi epileptikoen maiztasuna handiagotzeko arriskua altuagoa da haurdun ez egonik epilepsia krisi asko izaten duten pazienteengan. Horregatik oso garrantzitsua da haurdunaldian epilepsiaren kontrol egoki bat eramatea eta ondorioz AVParen bat-bateko etenaldia ez egitea.<sup>15</sup>

Haurdunaldiko lehen hiruhilekoan batez ere, posible den kasu guztietan AVP eta politerapia ekidin behar dira sortzetiko malformazio nagusien arriskua gutxitzeko. Haurdunaldi osoan zehar ere AVP eta politerapia ekidin behar dira haurrak luzaroan izan ditzakeen nahaste kognitiboen arriskua gutxitzeko eta garapen neurologikoa egokia izateko.<sup>5</sup>

Epilepsia duten eta haurdunaldian MAEak hartu zuten emakumeen erregistro guztien emaitzetan garbi azaltzen da MAE guztietatik AVP dela sortzetiko malformazio nagusiak izateko arrisku handiena duen farmakoa. MAE desberdinen ondorioz agertutako sortzetiko malformazio nagusien tasak argitaratu ziren NAAPR (*North American Antiepileptic Drug Pregnancy Registry*) eta EURAPen (*International Registry of Antiepileptic Drugs and Pregnancy*) **3.Irudian** ikusi dezakegun bezala.<sup>16</sup> EURAP erregistroko datuak erabiliz, MAE bakoitzaren sortzetiko malformazio nagusien prebalentziak honakoak izan ziren: AVParen kasuan % 10.3, fenobarbitala % 6.5, fenitoina % 6.4, carbamazepina % 5.5, topiramatoa % 3.9, oxcarbazepina % 3.0, lamotrigina % 2.9 eta levetiracetam % 2.8.<sup>19</sup>


### 3. Irudia: Sortzetiko malformazio nagusien tasak MAE desberdinekin NAAPR eta EURAPen. <sup>16</sup>



Antiepileptikoen segurtasun mailaren alderaketa haurdunaldian. Laginaren tamaina adierazita dago tratamendu bakoitzean; 50 paziente baino gutxiagoko ikerketak ez ziren sartu. AED: antiepileptic drug; NAAPR: North American Antiepileptic Drug Pregnancy Registry; EURAP: International Registry of Antiepileptic Drugs and Pregnancy. MCM: major congenital malformation <sup>16</sup>

Malformazio nagusien prebalentzia carbamazepina, lamotrigina, fenobarbital eta AVParen kasuan dosi dependentea dela egiaztatu da. AVParen kasuan, honen dosi baxuenak erabili arren (< 650mg/eguneko), beste MAEak baino arrisku handiagoa du jaioberriak malformazioak jasateko, salbuespen bakarra carbamazepinaren eta lamotriginaren dosi altuak erabiltzean eman da. Malformazio nagusiak izateko arrisku baxuena lamotriginaren dosi baxuak erabiltzean izan da (< 325mg/eguneko) **4.Irudian** aztertu genezakeen bezala. Levetiracetam eta oxcarbazepinari dagokionez, arriskua ez zen dosi dependentea izan eta gainera arriskua baxua izan zen, lamotriginaren dosi baxuak erabiltzearen ia antzekoa. <sup>16,19</sup>


4. Irudia: Malformazio tasak, lau farmako antiepileptikoren monoterapia dosi desberdinetan. <sup>16</sup>



Sortzetiko malformazioen tasa lau monoterapia dosi desberdinetan (valproatoa, fenobarbital, carbamazepina eta lamotrigina). Karratu beltzak batez bestekoa adierazten du eta lerro horizontalak %95eko konfiantza tartea. <sup>16</sup>

Haurdunaldian MAEak hartu ez zituzten emakumeen hurrek malformazio nagusiak izateko % 2.6ko arriskua zutela ikusi zen berriki eginiko meta-analisi handi batean. Hori horrela izanik, nahiz eta zaila izan ikerketa desberdinen datuak alderatzea, lamotriginaren, levetiracetamen eta oxcarbazepinaren ondorioz jaiotzetiko malformazio nagusiak izateko arriskua eta MAErik hartu ez duten emakumeek duten arriskua, arrisku-tarte berdinean sartuko zen. Lamotrigina eta levetiracetam fetuan albo-ondorio gutxien dituzten farmakoak dira **5.Irudian** ikus genezakeen bezala eta oxcarbazepinaren kasuan oraindik ez dira garapen neurologikoan eragin ditzakeen kalteak ezagutzen. <sup>16</sup>

5. Irudia: Farmako antiepileptikoen arrisku teratogenikoaren profila. <sup>16</sup>



Arrisku teratogenikoaren profilean sortzetiko malformazio nagusiak, hazkuntza fetala eta garapen neurologikoaren emaitzak sartzen dira. \* Garapen neurologikoan izan ditzakeen eraginak oraindik ez dira ezagutzen. <sup>16</sup>

## **2. HELBURUAK**

Hainbat herrialdeetan farmako honek eragin ditzakeen sortzetiko malformazioen inguruan alarma sozial garrantzitsu bat sortu da. Egoera hau ikusirik, lan honen helburu orokorra, 2018an OSI Donostialdean azido valproikoa hartzen duten emakume emankorren azterketa deskriptiboa egitea izango da. Azterketa deskriptibo horren barruan, jarraian aipatutako puntuak aztertuko dira:

1. 2018an OSI Donostialdean AVP hartzen duten emakume emankorren ezaugarri orokorrak (adina, diagnostikoa eta dosia).
2. Erabilitako kontrazepzio metodoak eta haurdunaldian AVP hartzean egondako albo-ondorioak.
3. AVParen albo-ondorioen inguruan emandako informazioa eta sinatutako baimen informatuen kopurua.

## **3. MATERIALA ETA METODOA**

Lan honen sarrera, bilaketa bibliografiko batean oinarritu dugu. Horretarako, medikuntza alorrean erabiltzen ditugun zenbait datu basetara jo dugu: PubMed, Cochrane, Clinical Key eta Up To Date. Datu baseetan erabilitako hitz gakoak “valproate”, “pregnancy”, “epilepsy”, “effect”, “women”, “antiepileptic” eta “malformations” izan dira. Erabilitako artikulua guztiak ingelesezkoak izan dira. Artikulu bat orain dela 10 urte baino lehenago argitaratutakoa izan arren, erabilitako gehienak azken hiru urtetakoak dira. Horrez gain, zenbait artikuluk aipatzen zituzten beste ikerketak ere erabili ditugu.


### **3.1. DISEINUA ETA IKERKETA-POPULAZIOA**

Lan hau 2018an OSI Donostialdean AVP hartzen duten emakume emankorren behaketa ikerketa erretrospektiboa da. Ikerketa-populazioa, neurologia saileko ebolutibo bat duten eta AVP edo Depakine hartzen ari diren 14 eta 50 urte bitarteko emakume emankorrek osatzen dute. Beste modu batera esanda, ikerketa honen inklusio irizpideak hurrengoak izan dira: 14-50 urte bitarteko emakumea izatea,

Depakine tratamendua hartzea eta neurologiako ebolutiboa izatea. Ikerketa populazioaren datuak aztertzeko, paziente bakoitzaren historial medikoa aztertu dugu Osabide Globalen, beraien IKK (Identifikazio Kode Korporatiboa) erabiliz.

2018ko irailean bildu ziren datuen arabera, 65 emakume emankor zeuden Depakine aginduarekin OSI Donostialdean. Sei hilabete ostean datu hauek berrikustean, ikerketa populaziotik kanpo 3 paziente gelditu dira, izan ere, paziente bat hil egin da eta bi ez dira Gipuzkoan bizi. Honetaz gain, 14 pazienteetan ikusi da jada ez dutela Depakine hartzen eta hauek ere aldagai guztien azterketa egiteko ikerketa populaziotik kanpo geldituko lirateke; hala ere, paziente hauetan iraganean izandako haurdunaldien datuak aztertu egin ditugu. Laburbilduz, gure ikerketa populazioan 48 emakume izango dira aldagai guztien azterketan parte hartuko dutenak **6.Irudian** ikus genezakeen bezala.

**6. Irudia: Ikerketa-populazioaren grafika.** Inklusio eta eskusio irizpideak erabiliz, 2018an OSI Donostialdean AVPa hartzen duten emakume emankorren ikerketa-populazioa nola burutu den azaltzen da.





### 3.2. AZTERTUTAKO ALDAGAIK

Ikertu beharreko populazioa finkatu ondoren, emakume emankorren zenbait aldagai aztertu ditugu datu-basea osatzeko **(2.Taula)**. Ondoren, datu basearen interpretaziorako, estatistika deskriptiboa eta analitikoa erabili dira.

**2.taula. Datu-basea osatzeko erabilitako aldagaiak.**

<b>DATU BASEA OSATZEKO AZTERTU DIREN ALDAGAIK</b>
<b>PAZIENTEAREN DATU OROKORRAK</b>
1. IKK 2. Neurologoa 3. Osasun zentroa 4. Adina 6. Tratamendua hasitako adina 7. Diagnostikoa 8. Atzerapen psikomotorea 9. Eguneko dosia 10. MAE gehiagoren preskripzioa
<b>PAZIENTEAREN DATU GINEKOLOGIKOAK</b>
11. Kontrazepzio metodoa 12. Haurdunaldia kopurua 13. Ume kopurua 14. Malformazioak 15. Haurdunaldian harturiko jarrera
<b>PAZIENTEARI EMANDAKO INFORMAZIOA</b>
16. Informazioa eman da 17. Baimen informatua beteta 18. Egon diren arazoak 19. Informazio osteko jarrera

### **3.3. KONTSIDERAZIO ETIKOAK**

Pazienteen informazioa ikerketa-proiektuan erabiltzeko helburuarekin soilik erregistratu zen, eta momentu oro errespetatua izan da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 erregelamendua (1.Eranskina). Datuak babesteko erregelamendu orokor hau, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokien pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da.

### **3.4. IKERKETAREN MUGAK**

Ikerketa honek daukan muga nagusia paziente askoren datuak urte askoan informatizatu gabe egon direla da, historia klinikoak paperean edo kontsulta pribatuetan egiten zirelako. Bestalde, AVP hartzen duten emakumeen haurren datuak ezin izan dugu lortu eta beraz AVPak epe luzera sor ditzakeen albo-ondorioak aztertzea ez da posible izan.

## **4. EMAITZA**

### **4.1. AZIDO VALPROIKO AGINDUAREN EZAUGARRIAK**

#### **4.1.1. Diagnostikoa**

2018an OSI Donostialdean aztertutako 48 pazienteetatik %97.9k epilepsiaren tratamendurako hartzen du AVP farmakoa. Epilepsia hauetatik %70.8a epilepsia orokor idiopatikoa dira, %16.7 beste epilepsia orokorrak eta %10.4 epilepsia partzialak (**3.Taula**). Beste epilepsia orokorrak aipatzen den taldean, entzefalopatia epileptikoa, epilepsia kriptogenikoa, krisi komizialak, Angelman sindromea edo West sindromea duten pazienteak sartzen dira. AVP hartzen ari diren emakume emankor guztietatik batek bakarrik ez du epilepsia eta min neuropatikoaren tratamendurako hartzen du farmakoa. Bestalde, AVP hartzen duten 48 emakumeetatik 14 (%29.2) atzerapen psikomotore garrantzitsu batekin daude.

**3. Taula: AVP-a hartzen duten pazienteen diagnostikoa.**

Diagnostikoa	Kopurua
Epilepsia orokor idiopatikoa	34
Beste epilepsia orokorrak	8
Epilepsia partziala	5
Min neuropatikoa	1

Pazienteen diagnostikoa adin tarte desberdinetan aztertu dugu. AVPa hartzen duten % 6.3 14-19 urte bitarteko pazienteak dira eta hauetatik % 66.7k epilepsia orokor idiopatikoa du eta % 33.3k beste epilepsia orokorrak. 20-29 adin tartekoetatik, pazienteen %16.7etatik %62.5ek epilepsia orokor idiopatikoa du eta gainontzekoak beste epilepsia orokorrak. 30-39 adin tartekoak, pazienteen % 16.7 dira eta hauetatik % 62.5ek ere epilepsia orokor idiopatikoa du, % 25ak epilepsia partziala eta gainontzekoak beste epilepsia orokor bat. 40-50 adin tartekoak, pazienteen % 60.3 dira eta epilepsia orokor idiopatikoa dute % 75.9ak, beste epilepsia orokorrak %10.3ak, epilepsia partziala % 10.3ek eta min neuropatikoa % 3.5ak (**4.Taula**). AVParekin tratatutako epilepsia orokor idiopatikoa gehienak 40-50 urteko emakumeengan agertzen dira, epilepsia partzialak 30 urtetik gorako pazienteetan dira AVParekin tratatuak eta beste diagnostikoei dagokienez antzekoak dira adin tarte guztietan.

**4. Taula: Pazientearen diagnostikoa, bere adin tartearen arabera sailkatuta.**

Adin tarte	Kopurua	Diagnostikoa	Kopurua
14-19 urte	3	Epilepsia orokor idiopatikoa	2
		Beste epilepsia orokorrak	1
20-29 urte	8	Epilepsia orokor idiopatikoa	5
		Beste epilepsia orokorrak	3
30-39 urte	8	Epilepsia orokor idiopatikoa	5
		Beste epilepsia orokorrak	1
		Epilepsia partziala	2
40-50 urte	29	Epilepsia orokor idiopatikoa	22
		Beste epilepsia orokorrak	3
		Epilepsia partziala	3
		Min neuropatikoa	1

#### 4.1.2. Dosia

Paziente guztien %37.5ak 700mg AVP baino gutxiago hartzen du egunean. Emakume emankorren %41.7aren AVP eguneko dosia 700-1000mg artean dago eta %20.8arena 1000mg baino gehiagokoa da (**5.Taula**).

#### 5. Taula: pazienteek hartzen duten AVParen eguneko dosia.

Eguneko dosia	Kopurua
< 700 mg	18
700- 1000 mg	20
> 1000 mg	10

Adin tartearen arabera, 14-19 urte bitarteko emakume emankorren % 66.7ak 700-1000mg-ko eguneko dosia hartzen du eta % 33.3ak 1000 mg baino gehiagoko dosia. 20-29 urte bitartean dituztenetan berriz %50ak 700mg baino gutxiago hartzen du eta beste %50ak 700-1000mg egunean. 30-39 urte bitartekoen %37.5ak 700mg baino gutxiago hartzen du, %12.5ak 700-1000mg artean eta %50ak 1000mg baino gehiago. 40-50 urte bitarteko emakumeen %37.9 700mg baino gutxiago hartzen du, %44.8ak 700 eta 1000mg arteko dosia eta %17.3ak 1000mg baino gehiagoko eguneko dosia (**6.Taula**). AVParen eguneko dosia 1000mg baino gehiago hartzen dutenen gehiengoa 30 urte baino gehiagoko adin tartean dago, arazo psikomotorra dute edo haurdun gelditzeko asmoa ez dutela adierazi dute. Aztertutako emakumeen artean dosi altuenak dituzten hiru pazienteak, eguneko 2000-3500mg arteko dosia dute eta arazo psikomotore edo entzefalopatia larri bat aurkezten dute eta AVParekin batera beste MAE batzuekin ere tratatuak dira.

#### 6. Taula: AVP-aren eguneko dosia, adin tartearen arabera.

Adin tartea	Kopurua	Eguneko dosia	Kopurua
14-19 urte	3	< 700 mg	0
		700- 1000 mg	2
		> 1000 mg	1
20-29 urte	8	< 700 mg/d	4
		700- 1000 mg/d	4
		> 1000 mg/d	0
30-39 urte	8	< 700 mg/d	3
		700- 1000 mg/d	1
		> 1000 mg/d	4

40-50 urte	29	< 700 mg/d	11
		700- 1000 mg/d	13
		> 1000 mg/d	5

## 4.2. KONTRAZEPZIOA

